

**ILUMA**



## Lurra

Gau huntan agertu zait, nere ametsetan  
Mundu alegiazko bat, mila maneretan  
Itsasoak zituen mendiak parean  
Kemená agertzen zen uhainen kantuan

Nun ote da paradisia ?  
Nun ote da lur hauen giltza ?

Ezin nuen ikus oihanen burua  
Hodeiek baizik ez ziren nahasteko zerua  
Deus ez zuen estaltzen haizearen haroa  
Bainan gustukoa nuen leku basa hura

Nun ote da paradisia ?  
Nun ote da lur hauen giltza ?

Ez ote da gure mundua ?  
Beti ote da gure mundua ?  
Ez ote da amalurra ?  
Beti ote da gure mundua ?

**A.B.A** (*Askatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna*)



Zein ederra den gure Frantzia,  
Biltzeko orde zatitzen daukuna.  
Geldierazi ote dezakegu,  
Zentzugabekeri handi hura ?  
Askatasuna, berdintasuna, anaitasuna,  
Hau da frantziako errepublikaren ikurburua !

Biziak, etorkiak  
Koloreak, jainkoak.

Ez ote dugu deus ulertu ?  
Denak gizonak baizik ez gira.  
Ez dezakegu naski egin bestela,  
Ezin ikusten ber xedea dugula.  
Askatasuna, berdintasuna, anaitasuna,  
Egiazki ote da frantziako ikurburua ?!

Biziak, etorkiak  
Koloreak, jainkoak  
Zein-nahi nora joaten  
Zein-nahi nundik heltzen.

# Ezinbesteko geroa

Zertako uste duzu, mundua den hain hotza  
Zertako iduri zaizu, ezin aldatua dela.

Noiztenka amesten bazinu, dena ez dela herra eta zoritxarra  
Burua altxatzen bazinu, ikus zinezake, agian ikus zinezake ...

Ez duela eguzkiak bere distira galdua  
Odeiek dute iluntzen gure mundua

Jende etsituez baizik ez zira inguratua  
Gero hau iduri zaizu, ezinbestekoa dela.

Noiztenka saiatzen bazina, behingoz esnatzea eta aritzea,  
Itxaropena hedatzea, ikus lezakete, agian ikus lezakete...

Ez duela eguzkiak bere distira galdua  
Odeiek dute iluntzen gure mundua

Bizi zireno, menturatzen bazina itxaropena hedatzera.

# Galtzea garaipena

Askatasunari buruz  
Bidaia luzea baita  
Oroitzapeneri lotuz  
Segurki aitzina noa

Hegaldaka nabil  
Etengabe hiltzen  
Etengabe berpizten

Jasan dut garaipena  
Jasan dut garaipena  
Ta geroztik galtzea

Aitorpenari buruz  
Bidaia nekea baita  
Geroari pentzatzuz  
Asmoen ondolik noa

Hegaldaka nabil  
Etengabe hiltzen  
Etengabe berpizten

Jasan dut galtzea  
Jasan dut galtzea  
Ta lortu garaipena

# Lotura

Utzi zaitu, zure penarekin bera  
Bizi guziko, lilura osoa  
Zure bihotza hoztua egon da  
Bainan ez betiko, berotuko da

Gurekin bizia aitzina doa  
Zurekin lotura betikoa baita  
Biziak ez gaitu inoiz bereiziko  
Elgarrekin etengabe kantatzeko

Utzi zaitu bihotza zauritua  
Bainan ez du eraman zure irria  
Ez da istorioaren bukaera  
Ez kexa, goxo baita bizitzea

Gurekin bizia aitzina doa  
Zurekin lotura betikoa baita  
Biziak ez gaitu inoiz bereiziko  
Elgarrekin etengabe kantatzeko

Geroa zurea izanen da maitea  
Zerua izarrez beteko da milaka  
Hontz batek urbilduko da zuregana  
Gauean gaindi zure gidatzera.

## Udazken euria

Mendi goran, bake bidean, euria xorta larritan.  
Iduri du negarrez ari den gure lurraren oihua.  
Sartu gira etxola batean, suaren inguruan.  
Egon gira ixtorio kondan goxotasuna airean.

Behatzen dut kanpoan bizia, isila bezain lasaia.  
Ohartzen naiz ez girela, babesten giren bakarrak.  
Euriarekin erortzen dira hosto koloretsuak.  
Lurra laster dena estalia, negura sartuko gira.

Oroitzapen zaharrak, onenak bezain txarrenak.  
Euria bezala haizean; nahasten nire buruan.  
Suaren berotasuna, hedatzen ari den argia.  
Arintzen naute bihotza, oroiminaz betea.

Gelditu da euria, gelditu da denbora,  
Ortzadar bat agertu da.  
Berriz aurkitu dut lasaitasuna,  
Egunargitik ilargira.

## Doi-doa bizirik

Urrun joana zira baina, bizira berriz itzulia,  
Zure biziaren alde borroka eramaitera.  
Halakoa baita bizia, ez da denbora galtzekorik.  
Ustegabeko ikasbidea, doi-doa gaudelako bizirik.

Bizirik naizeno, buru eginen diet lotseri  
Bizirik naizeno, batzutan negar, askotan irri.

Hala eta guziz ere, segitzen duzu borroka azkarki.  
Dudarik gabe oraino, zerbaitek sustatzen zaitu finki.  
Jakin nahi genuke, nun aurkitzen duzun indarra.  
Familian, ađiskidetan, bizian sinple-sinpleki.

Bizirik naizeno, buru eginen diet lotseri  
Bizirik naizeno, batzutan negar, askotan irri  
Menturaz egun batez geldituko da bidai hori  
Bainan hor naizeno, nik ere segituko dut bizi.




# Apalik

Hitzak : Itxaro Borda

Itsaso aldetik heldu zeh haizeak  
Urrun eman ditu gure oinazeak  
Gizonen eskuak baitira gogortu  
Herri zahar huntan bizia da sortu  
Apalik, mintzo naiz iraultzaz,  
Jende ixilen bihotz zaurituerei

Hiltzen banaiz bihar ez naute hautsiko  
Menditik lagunak baitira jautsiko  
Sua begietan eta bihotzean  
Daukat gorderikan lurraren hotzean  
Apalik, mintzo naiz iraultzaz,  
Jende ixilen bihotz zaurituerei

Nere hitzen hutsa gora bedi aira  
Berriz hasi arte euskaldun kondaira  
Euskadiko lurra agian gogotik  
Kantuz joanen da ametsen ondotik  
Apalik, mintzo naiz iraultzaz,  
Jende ixilen bihotz zaurituerei



# Bakearen bila

Errautxak estali ditu  
Oroitzapenen koloreak  
Malkoek eraman dituzte  
Haurren bukaezin irriak

Nundik heldu dira basa hauek  
Arima gabe hauek  
Geroa hautsi gaituzte basaki  
Ez gintezen bakean bizi

Maite dugun lurraldea da  
Ahantzi behar dugun herria  
Aterabide besterik ez da  
Inesi mundu baketsu batera

Herri barreiatu hontan,  
Ez da deusik gelditzen  
Hemen ez gira bakean  
Murru bat gaitu bereizten

Egunak dira goibel-goibelak,  
Gauak hertsagarriegiak,  
Amesgaixto batean banai,  
Noiz beraz iratzarriko nai?

Behar dugu hemendik ihesi  
Herria utzietsi  
Herrikide hauek itsuki segi  
Mundu hobe bat ikusi

Maite dugun lurraldea da  
Ahantzi behar dugun herria  
Aterabide besterik ez da  
Inesi mundu baketsu batera

# Zaindari

Gure aberastasuna zaintzeko borroka  
Beti bezainbeste dira garrantzitsuak  
Mugagabekoa, mugagabekoa  
bainan hainbeste hauskorra baita  
Ezin dugu utzi, ezin dugu utzi  
zimeltzera, lore eihartu bat bezala

Desira dezagun, desira dezagun, gure herri baketsua  
Amestu dezagun, amestu dezagun, gure herria

# ILUMA

Lurra

A.B.A

Ezinbesteko geroa

Galtzea Garaipena

Lotura

Udazken euria

Doi-doia bizirik

Apalik

Bakearen bila

Zaindari

hitzak

